

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2023ko URTARRILAREN 26an, LARRAULGO UDAL PLENO
ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2023ko urtarrilaren 26an, arratsaldeko 15.15 orduetan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakartzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira bilkura honetan.

ZINEGOTZIAK: Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado
Maialen Alonso Labandibar (Telematikoki
konektatzen da).


Bere ezin etorria adierazten dute: Jesus Maria Tejada Cantero eta Aitor Beistegui Fiallegas.

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2022ko azaroaren 24an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 24 de noviembre de 2022.**
 - **2022ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 20 de diciembre de 2022.**
 - **2022ko abenduaren 28an egindako ez ohiko bilkura/ Sesión extraordinaria de fecha 28 de diciembre de 2022.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Datuak babesteko DBEOri (DPO) mantentze-zerbitzua esleitzea./ Adjudicación del servicio de mantenimiento al RGPD de protección de datos (DPO).**
- 5. Datuak babesteko ordezkariaren zerbitzua esleitzea./Adjudicación del servicio de delegado de protección de datos (DPO).**
- 6. Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitektuari buruzko aholkularitza zerbitzuen esleipena./ Adjudicación de los servicios**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


- de asesoramiento urbanístico y arquitectura para el Ayuntamiento de Larraul.
7. **2023 Ekitaldirako Udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespina ematea, hala bada./ Aprobación inicial del expediente del presupuesto general del Ayuntamiento para el ejercicio 2023.**
 8. **2022-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren hasierako onspena./Aprobación inicial del Plan Estrategico de subvenciones 2022-2025.**
 9. **Eudel-ek eginiko gomendioaren onspena, 2023ko ekitaldirako langileen ordain sariei buruzkoa, hala bada/ Aprobación de la recomendación realizada por Eudel, en relación a los incrementos retributivos del ejercicio 2023.**
 10. **Larraulgo udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren informatika Elkarte, S.A. (EJIE) ren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren onspena, KZgunea zentroen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko, KZ ciudadan@ programaren esparruan./Aprobación del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Larraul y la Sociedad Vasca de informática del Gobierno Vasco Eusko Jaurlaritzaren informatika Elkarte, S.A. (EJIE) para regular la apertura, utilización y aprovechamiento de centros KZGUNEA dentro del marco del programa KZ ciudadan@**
 11. **Harituz Tolosaldeko bertsozale Elkarguneak aurkezturiko 2022 urteko memoriaren berri ematea./ Dar cuenta de la memoria 2022 presentada por Harituz, Tolosaldeko bertsozale Elkargunea.**
 12. **Larraulgo Olazar aldea lursaila, polígono 2, 7 lursaila dohaintzan jasotzeko onspena./ Aceptación de la donación de la parcela Olazar, polígono 2, parcela 7 de Larraul.**
 13. **Beste batzuk/Otros.**
 14. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2022 urteko azaroaren 24an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.
- ▣ 2022 urteko abenduaren 20an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- 2022 urteko abenduaren 28an egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.


BIGARRENGO PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 160/2022tik 171/2022ra eta 1/2023tik 4/2023ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

REPSOL ELECTRICIDAD	292,03
REPSOL ELECTRICIDAD	89,09
REPSOL ELECTRICIDAD	27,20
REPSOL ELECTRICIDAD	173,73
REPSOL ELECTRICIDAD	184,08
SECURITAS DIRECT	53,02
SECURITAS DIRECT	52,39
TELEFONICA	102,25
TELEFONICA	214,65
TELEFONICA	27,59
NORTEGAS	153,65
GRENKE	129,41
EBA ERKIZIA	1070,74
IÑAKI ESNAL	300,00
GARRA	2787,84
ULAHI	429,57
GIPUZKOAKO URAK	4870,45
VIVEROS URKI-ONDO	284,96
MENDI NEKAZARITZA	54,70
OSCAR GALINDO	133,10
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1129,11
AZTAKA	312,22
JOSE LUIS IRIARTE	162,50



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HEIKO WIM CALLENS	232,50
PIENSOS MANTEROLA	66,00
ESTANIS JAUREGI	291,76
TXALO-TAKO ARTE	500,00
ROBERTO BROSA	518,00
BAKE EPAITEGIA	318,75
ZU ETA BIOD	1081,12
HEIKO WIM CALLENS	279,00
ASTEASUKO UDALA	500,00
ASTEASUKO UDALA	1000,00
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1181,84
EKONOMISTAK	195,00
GIPUZKOAKO MENDI FEDERAZIOA	409,59
IGNACIO AGINALDE	1500,00
IGNACIO AGINALDE	1500,00
YAIZA RUIZ	353,00
M ^a PILAR CORTAJARENA	1177,62
M ^a PILAR CORTAJARENA	1491,22
IXIAR ARTEAGA	798,60
KIROLZER	50,30
KATILLU TXULO	278,60

Udalbatza honek, **ahoz bidez** hurrengoak,

ERABAKITZEN DU


BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **26.757,18** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

DATUAK BABESTEKO DBEOri (DPO) MANTENTZE-ZERBITZUA ESLEITZEA

Larraulgo Udala, Datuak babesteko DBEO-ri (DPO) mantentze zerbitzua esleitzeko beharrez aurkitzen da, legeak horrela eskatuta.

Larraulgo Udalak, guzti hau ikusita, OSK enpresari aurrekontu bat eskatu dio, bere zenbatekoa urtean 650,00 euro izanik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.


Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: OSK enpresari, Datuak babesteko DBEOri (DPO) mantentze zerbitzua esleitzea 650,00€ (BEZa kanpo), 1.0000.227.920.00.99 kontu sailaren kontura "Beste enpresak emandako zerbitzuak: LOPD". Kontratua urte beteko balioa izango du, 2023ko urtarrilaren 1etik, abenduaren 31ra bitarte.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Erabaki honen berri OSK enpresari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN ZERBITZUA ESLEITZEA

Larraulgo Udala, Datuak babesteko ordezkariaren zerbitzua esleitzeko beharrean aurkitzen da, legeak horrela eskatuta.

Larraulgo Udalak, guzti hau ikusita, OSK enpresari aurrekontu bat eskatu dio, bere zenbatekoa urtean 1.320,00 euro izanik.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.


Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: OSK enpresari, Datuak babesteko ordezkariaren zerbitzua esleitzea 1.320,00€ (BEZa kanpo), 1.0000.227.920.00.99 kontu sailaren kontura "Beste enpresak emandako zerbitzuak: LOPD". Kontratua urte beteko balioa izango du, 2023ko urtarrilaren 1etik, abenduaren 31ra bitarte.

BIGARRENA: Erabaki honen berri OSK enpresari ematea.

SEIGARREN PUNTUA **LARRAULGO UDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTUARI** **BURUZKO AHOAKULARITZA ZERBITZUEN ESLEIPENA**

Larraulgo Udala, hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuen beharrean aurkitzen da.

Larraulgo Udalak, guzti hau ikusita, zerbitzua eskaintzeko hiru arkitektoei eskatu die aurrekontuak, ondorengoak izanik: Eba Erkizia Brion, Juan Ramon Ojeda Marin eta Juan Antonio Herrarte Azpeitia.


Aurrekontuak azterturik, EBA ERKIZIA BRION arkitektoarena merkeena dela aurreikusten da. Ondoren zehazten diren zerbitzuak emanaz: Udaletxean hileroko aholkularitza lanetik jasotako ordainsaria (astean bi orduz Larraulgo Udaletxean) 556,03 euro.

Ordu hauetatik kanpo gertatzen diren lanen ordainsaria, egindako lanordu kopuruetan eta joan-etorrietan erabilitako denboran neurtuko da, hileroko 55,60 euro orduko fakturatuz.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.


Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: EBA ERKIZIA BRION arkitektoari, Larraulgo udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko astean bi orduko aholkularitza zerbitzua esleitzea 556,03€ hileko eta aparteko orduak 55,60 euro orduko (BEZa kanpo), 1.0000.227.150.00.07 kontu sailaren kontura "Aholkularitza: azterketa eta lan teknikoak. Arkitektoa". Kontratua urte beteko balioa izango du, 2023ko urtarrilaren 1etik, abenduaren 31ra bitarte.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Eba Erkizia Brion, Juan Ramon Ojeda Marin eta Juan Antonio Herrarte Azpeitia arkitektoei ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZAZPIGARREN PUNTUA

2023 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2023 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.


Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2023ko urtarrilaren 9an egindako txostenean dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2023 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea **442.338,00** eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

SARRERAK	442.338,00€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	52.600,00
2. Kap. Zeharkako Zergak	3.000,00
3. Kap. Tasak eta bestelako zergak	47.905,00
4. Kap. Transferentzia arruntak	283.555,00
5. Kap. Ondare Sarrerak	3.000,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak besterengan.	0,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	52.278,00
8. Kap. Finantza aktiboak	0,00
9. Kap. Finantza Pasiboak	0,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GASTUAK	442.338,00€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Pertsonal gastuak	113.200,00
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	179.108,00
3. Kap. Finantza gastuak	1.500,00
4. Kap. Transferentzia arruntak	69.485,51
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak	62.844,49
7. Kap. Kapital Transferentziak	8.200,00
8. Kap. Finantza aktiboak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	8.000,00

BIGARRENA.- 2023ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtsio eta alegazioak tartekatuzko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2022-2025 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN HASIERAKO ONESPENA


Ikusirik Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten duela 2023-2025 diru-laguntzen plan estrategikoa arautzen dituen ordenantza onartzea, aurrekoa amaitu baita.

Ikusirik Larraulgo Udalak prestatu duela goian aipaturiko ordenantza, batzarkideek honen berri dutelarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2023-2025 epealdirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa arautzen duen udal-ordenantzaren hasierako onespena ematea, ondorengo testuaren arabera:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LARRAULGO UDALA

*Larraulgo udaleko 2023-2025 dirulaguntzen plan
estrategikoa arautzen duen ordenantza.*

ATARIKOA

Oinarrizko izaera duen Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio:

«administrazioko organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru-laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea».


38/2003 Legeko 13. Xedapen Gehigarriak ezartzen du legezko arau edo erregelamenduetan aurreikusitako politika publikoei buruzko plan edo programak Diru-laguntzen Plan Estrategikotzat joko direla edo 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan aurreikusitako edukia jasoko dutela.

Diru-laguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipiotako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina diru-laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailaren igoeran.

Zentzu horretan, diru-laguntzei buruzko informazio gehiago izateak merkatuan eragina izan ditzaketen distortsio eta interferentziak kentzea ahalbideratuko du, eta administrazio publikoen jardunen osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du, edozein motako gainjartzea ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko Diru-laguntzei buruzko Plan Estrategikoa egitea aurreikusten du araudiak. Plan hori diru-laguntzak sortu aurretik egin beharko da.

Plan hau hainbat urtetarako izateko bokazioz egin da, beti ere urtero beharrezko izan daitezkeen aldaketak egin beharko bazaizkio ere. Horregatik, Larraulgo Udalak Diru-laguntzen Plan Estrategikoa arautzen duen ordenantza onartu du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Larraulgo Udalak emango dituen diru-laguntzak, Larraulgo Udalean indarrean dagoen diru-laguntzak emateko Araudiaren, Diru-laguntzen Lege Orokorraren, Plan honen, dagozkion hitzarmenen eta, hala badagokio, diru-laguntzak emateko urtero egingo diren deialdien oinarrien arabera emango ditu.

2. artikulua.

Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsigna-zioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta diru-laguntzak arautzeko oinarriak onartu, hala badagokio.

Diru-laguntzak aurrekontuetan jaso eta emateko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kontsigna-zioak eta diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

3. artikulua.

Diru-laguntzen Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezingo dute inolako kalte-ordainik edo konpentsa ziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.


4. artikulua.

Udalak, deialdi publiko bidez edo lankidetzaz hitzarmenak eginaz, diru-laguntzak emango dizkie pertsoneri, elkarteei edo erakunde pribatuei, herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

5. artikulua.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

— Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibitatea, gardentasuna, publikitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, emakida zuzenaren kaltetan gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsigna-zioa izan beharko du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

— Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.

— Eraginkortasuna, jarritako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharra.

— Diru-laguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.

— Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea, hau da, Plana termino sozialetan justifikatzea. Planak kontuan hartzea herritarren beharrak eta finantza gaitasuna.

6. artikulua.

Alkateak, diru-laguntzak emateko organo eskudunak, kudeaketa ekonomikoa egiteko funtzioa du, eta beraz, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa exekutatzekoa. Beraz:

— Diru-laguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.

— Diru-laguntzak edo emakida zuzenak (hitzarmenak) eman aurretik gastua onartu beharko da Larraulgo Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.

— Eta azkenik, diru-laguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

II. KAPITULUA


PLANAREN EDUKIA

7. artikulua.

Larraulgo Diru-laguntzen Plan Estrategiko honetan 2023-2025 urteetarako aurreikusitako diru-laguntzak jasotzen dira.

Larraulgo Udalak diru-laguntzak emango ditu urtero, ondorengo lerro estrategikoetan: gizarte gaiak, euskararen sustapena, hezkuntzaren sustapena eta kirolaren sustapena. Plan Estrategiko honen I. eranskinen lerro estrategiko bakoitzaren ondorengo puntuak jasoko dira:

- Helburu estrategikoa.
- Helburu zehatzak.
- Exekuzio epea.
- Finantziazio iturriak.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

8. artikulua.

Plan Estrategiko honen II. eranskinean, baita ere, diru-laguntza bakoitzaren ondorengo puntuak jasoko dira:

— Aurrekontu partida.

— Azalpena: diru-laguntza zein helburutarako erabiliko den zehazten da, gero helburu hori ebaluatu ahal izateko.

— Zenbatekoa, urteroko kontsigna-zioa.

— Kudeaketa mota: diru-laguntza emateko aplikatu beharreko prozedura aurreikusten da (lehiakortasun askea, lankidetzaz hitzarmena, programa).

— Lerroa: Diru-laguntza atxikitzen den lerro estrategikoa.

III. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN GARAPENAREN FINANTZA ETA LEGEZKOTASUN KONTROLA

9. artikulua.

Diruz lagundutako programen finantza kontrola eta legezkontasun kontrola, haien garapen maila desberdinetan, Udaleko kontu-hartzailearen egitekoa da, eta hark horri buruz beharrezko irizten dituen egiaztatze lanak egingo ditu, diru-laguntzei buruz indarrean dagoen legeria egoki betetzen dela bermatzeko.

10. artikulua.


Aurrekoaren kalterik gabe, diru-laguntzak izapidetzeaz ardura duten udal zerbitzu desberdinetako arduradunek jasota utziko dute espedientean beharrezkoak diren udal ebazpenak, eta hartzeko legez eskatu daitezkeen betebeharrak bete dituztela ziurtatzen duten idatziak garapen edo izapide faseetan (eskabideak onartzea, horiek baloratzea, emateko proposamena egitea eta laguntzen bukaerako justifikazioa eta kitapena).

IV. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUN ETA EMAITZEN AZTERKETA ETA KONTROLA

11. artikulua.

Diru-laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, Larraulgo Udalak txosten arrazoitua eskatuko diete diru-laguntzak jasotzen dituztenei. Txostenean, besteak beste, garatutako ekintzen azalpena eta lortutako helburuak justifikatu beharko dira. Zehazki, ondorengo alderdiak jasoko dira:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Helburua.
- Diru-laguntza jasotzen duen erakundea, eta hala bada, laguntzailea.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa.
- Diru-laguntzarekin egindako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina. Udalak balorazioa egingo du laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidez kotitasunari buruz.

12. artikulua.

Gardentasunekin betetzeko, lerro estrategiko bakoitzean emandako diru-laguntza guztiak urtero argitaratuko dira udal webgunean, bertan adieraziz laguntzak nori jaso dituen, zenbatekoa, eta diruz lagundutako ekintza.

13. artikulua.

Planaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, Alkateak ebaluazio txostena aurkeztuko du Informazio Batzorde Orokorrean. Bertan, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: Planaren betetze maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan diru laguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak; eta horrekin batera, hurrengo Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

AZKEN XEDAPENA

Plan hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA

LERRO ESTRATEGIKOA


1. Lerro estrategikoa: gizarte gaiak.

— Helburu estrategikoa:

*Herri txiroenen garapenean laguntzea herritarren sentiberatasuna handitzeko ekimenak sustatuz eta bizi baldintzak hobetzen laguntzea elkartasunerako eta toki garapenerako proiektuetarako diru laguntzak emanez.

*Oporrak bakean, Tolosaldeko familietara etortzen diren haurren programa sustatzea eta garatzea

— Helburu zehatzak:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

* GKEei laguntzea beraien ekimen eta lankidetzeta proiektuetan herri pobrentzako eta garapen bidean daudenentzako ekarpen gisa.

*Oporrak bakean, proiektua laguntzea, Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren haurrei garapenerako onura eskainiz.

— Exekuzio epea: Urterokoa.

— Finantziazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

2. Lerro estrategikoa : Hezkuntza sustatzea.

— Helburu estrategikoa:

*Bertsolaritza sustatzea.

*Eskolan gauzatzen diren hainbat ekintza sustatzea.

*Herrian hezkuntza berrikuntza sustatzea eta herritarrei zuzendutako kultur eskaintza hobetzea.

— Helburu zehatzak:

*Diru- laguntzak ematea bertsolaritzako irakasleei ordaintzen laguntzeko.

*Diru-laguntzak ematea eskolari, bertan gauzatzen diren ekintzak finantzatzen laguntzeko.

*Herriko Eskolako guraso elkarteetan urtean zehar hainbat ekintza antolatu eta burutzeko diruz laguntzea, herriko haurren mesedetan.

— Exekuzio epea: Urterokoa.

— Finantziazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

3.Lerro estrategikoa: euskararen sustapena.

— Helburu estrategikoa: Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta normalizatzea.

— Helburu zehatzak:

* Adin nagusikoei euskara ikasteko erraztasunak eskaintzea.

* Tokiko euskarazko komunikabideen bideragarritasuna bermatzea.

* Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko Euskal Herri mailako jarduera zehatzetan laguntzea.


— Exekuzio epea: Urterokoa.

— Finantziazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

4. Lerro estrategikoa: kirolaren sustapena.

— Helburu estrategikoa: Herritar guztiei beraien kirol jarduera eskaera asetzeko aukera ematea eta bizi kalitatea hobetzeko jarduera osasungarriak sustatzea kirol erakunde, elkarte eta federazioekin elkarlanean arituz.

— Helburu zehatzak:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

* Ahalik eta jende gehienak kirola egitea sustatzea ohitura osasungarri eta gomendagarri bezala.

* Kirol jarduerak egiteko zein kirol instalazio sarea hobetzeko laguntza ematea.

* Eskola-kirola jarduera sustatzea.

— Exekuzio epea: Urterokoa.

— Finantziazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

5. Lerro estrategikoa: Berdintasunaren sustapena.

— Helburu estrategikoa:

*Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko duten programak, ekintzak eta jarduerak sustatzea.

* Tolosaldeko Emakumeen Etxearen kudeaketa eta garapena.

— Helburu zehatzak:


* Eskualdeko emakumeentzako bilgune, babesleku eta erreferente bat izatea.

— Exekuzio epea: Urterokoa.

— Finantziazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

<i>Partida</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Kudeaketa</i>	<i>Lerroa</i>
1.0000.417.231.00.01	Oporrak bakean	125	Zuzena-izenduna	1
1.0000.422.323.00.01	Guraso Elkarte	2.500	Zuzena-izenduna	2
1 0000.422.334.00.01	Aiurri	750	Zuzena-izenduna	3
1 0000.422.334.00.02	Ataria	750	Zuzena-izenduna	3
1 0000.422.334.00.03	Harituz: Tolosaldeko bertsozale Elkarte	600	Zuzena-izenduna	2
1 0000.480.335.00.01	Euskara ikasteko diru-laguntzak	1.000	Deialdia. Norgehiagoka	3
1 0000.422.340.00.02	Aiztondo Klasikoa batzordea	1.000	Zuzena-izenduna	4
1 0000.422.341.00.04	Aiztondo nesken kluba	500	Zuzena-izenduna	4
1 0000.422.341.00.02	Danena txirrindulari elkarte	500	Zuzena-izenduna	4
1 0000.422.341.00.03	Tolosaldeko arraun kluba	50	Zuzena-izenduna	4
1 0000.430.323.00.01	Herri eskola	750	Zuzena-izenduna	2
1 0000.480.231.00.01	Emakumeen etxea	100	Zuzena-izenduna	5
1 0000.780.341.00.01	Txirrindeleko elektrikoak	2500	Deialdia. Norgehiagoka	4

BIGARRENA: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 artikuluek eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen (Toki Araubideari dagokionez indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bategina onartzen duena) 56.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

artikuluak agintzen dutenari jarraiki, espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, aipatu espedienteaz aztertu eta nahi duenak egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzan.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onartutako Plan estrategikoa behin betiko onartutzat emango da.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

EUDELEK EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, 2023KO EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAIN SARIEI BURUZKOA, HALA BADA

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengo dioen:

“2023ko ORDAINSARIEN IGOERARI BURUZKO ZIRKULAR INFORMATIBOA

2022.12.24an, BOEn **abenduaren 23ko 31/2022 Legea** argitaratu da, **2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa**.

Lege horrek III. Tituluko I. Kapituluaren arautzen ditu sektore publikoaren zerbitzura dauden langile-gastuak, eta, zehazki, 19. artikuluan, 2023ko ekitaldirako ordainsarien igoeren mugen gaiari heldu dio, eta honako hau arautu du:


“19. artikulua. Jarduera ekonomiko-aren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen gastuei dagokienez.

(...) Bi. 1. 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarietara ezingo dute ehuneko 2,5eko igoera orokorra izan 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudene-kiko, konparazioaren bi aldiatarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinatasunari dagokionez.

2. Halaber, hala badagokio, igoera hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, eta bi kasuetan 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko KPIHaren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren batura ehuneko 6tik gorakoa bada, ehuneko 0,5eko gehieneko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.

b) Ondorio horietarako, Espainiako Estatistikako Institutuak



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

(INE) 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da.

c) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izan duen bilakaerari lotutako igoera. BPG nominalaren hazkundera Jaurlaritzak Aurrekontuen Lege hau egitearekin batera doan koadro makroekonomikoan kalkulaturakoa bera edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari igoera osagarria aplikatuko da.

Horretarako, INEk 2023ko BPGaren aurrerapen datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...)

Aurrekoa ikusita, eta EUDELek aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsari-igoerei dagokienez egin duen bezala, ordainsarien arloan 31/2022 Legeak izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzat jotzen da Euskadiko udalei honako hau adieraztea:

GOMENDIOA


a) Ordainsarien igoera orokorra legez onartutako mugaren arabera onartzea, hau da, ehuneko 2,5 handiagoa izatea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean. Igoera orokor hori bi alderdietan berdina izan behar dira: langileen kopuruari dagokionez eta antzintasunari dagokionez. Igoera 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin izan behar da. Hori guztia 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19-Bi-1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Aipatutako 31/2022 Lege horren 19-Bi-2 artikuluan xedatutakoari dagokionez, % 0,5eko igoera gehigarri bana aurreikusten duena, hau da, Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari eta Barne Produktu Gordinaren (BPG) 2023ko bilakaerari lotuta, Ministro Kontseiluaren Erabakian adierazitako egunetan xedatutako dutena betetzea gomendatzen da. Horretarako EUDELek horren guztiaren berri emango du. “

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2023 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioa bere osotasunean onestea eta aplikatzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HAMARGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA, S.A.(EJIE)REN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, KZGUNEA ZENTROEN IREKIERA, ERABILERA ETA APROBETXAMENDUA ARAUTZEKO, KZ CIUDADAN@ PROGRAMAREN ESPARRUAN

Ikusita, Larraulgo udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren informatika elkarte, S.A. (EJIE)ren arteko lankidetzahitzarmenaren zirriborroa prestatu dela, KZgunea zentroen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko, KZ ciudadan@ programaren esparruan.

Hitzarmen honen helburua EJIEren eta Larraulgo udalaren arteko lankidetzaharremanak ezartzea da, KZgunea ireki, erabili eta aprobetxatzeko prestakuntza-programak eta KZ gunek eskaintzen dituen gainerako zerbitzuak emateko eta, horrenbestez, KZ gunea dagoen gelaren jabari publikoko emakida arautzea.

Ikusita, Larraulgo udalak interesa duela Eusko Jaurlaritzaren informatika elkartearekin(EJIE) lankidetzahitzarmena sinatzeko, KZgunea zentroen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren informatika elkarte, S.A. (EJIE)ren arteko lankidetzahitzarmenaren onespena, KZgunea zentroen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko, KZ ciudadan@ programaren esparruan.


BIGARRENA: Goian onarturiko hitzarmenari lotutako prebentzio-planen onespena.

HIRUGARRENA: Maite Arana Perez andrea, Larraulgo udaleko alkatelehendakari andrea ahalmenu aipaturiko hitzarmena sina dezan.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri, Eusko Jaurlaritzako informatika elkarteari ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARGUNEAK AURKEZTURIKO 2022 URTEKO MEMORIAREN BERRI EMATEA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Harituz, Tolosaldeko bertsozale elkarguneak aurkeztu duela 2022 urtean jasotako diru-laguntzen kitapena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Harituz, Tolosaldeko bertsozale elkarguneak 2022 urteko Larraulgo udaletik jasotako diru-laguntza zuzitzeko, aurkezturiko kitapena, Larraulgo udalak onesten du.

HAMABIGARREN PUNTUA

LARRAULGO OLAZAR ALDEA LURSAILA, POLIGONO2, 7 ZENBAKIDUN LURSAILA DOHANTAN JASOTZEKO ONESPENA

Ikusita Maria Margarita Mugica Gaztañaga andreak, Larraulgo poligono 2, 7 zenbakidun lursailaren jabea dela, hau da, Olazar aldea deritzon lurraren jabea dela, ondorengo deskripzioa duena:

“RUSTICA: Terreno castañal en el mismo punto OLAZAR-ALDEA, sito en jurisdicción de Larraul, de ciento once áreas diez centiáreas y cincuenta decímetros cuadrados. Lindante por Norte, con regata que baja del Ernio: por Este, con el trozo desmembrado propio ahora de la casa Albistegui; por Sur, con hayal de Olazaga, castañal de Olarreaga y camino carretil y por Oeste, con el castañal número seis de Olazcoaga”


Ikusita Maria Margarita Mugica Gaztañaga andreak, Larraulgo Olazar aldea lursaila, Larraulgo Udalari dohaintzan lagatzeko asmoa duela.

Ikusita Larraulgo Udalak, Maria Margarita Mugica Gaztañaga andreak dohaintzan eman nahi duen Olazar aldea lursaila onartu nahi duela.

Gai azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo udalak, ondoren zehazten den dohaintza jasotzeko onespena ematea: Maria Margarita Mugica Gaztañaga andrearen jabetzakoa den, Larraulgo poligono 2, 7 zenbakidun lursaila, Olaza-aldea lursaila.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Maite Arana Perez, Larraulgo udaleko alkate-lehendakari andreaki ahalmena ematea, dohaintza hau gauzatu ahal izateko.

HIRUGARRENA: Larraulgo udalak, dohaintza hau gauzatzeko beharrezkoak diren, notaritza, jabetza erregistro eta Ixiar Arteaga abokatuaren gastuen kargu egingo da.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Maria Margarita Mugica Gaztañagari ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMALAU GARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 15:55 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.